



APARTEKOTASUN BIKOITZA DUTEN IKASLEEN HEZKUNTZA ERANTZUNA.



Universidad de Deusto
Deustuko Unibertsitatea

ADIMEN GAITASUN HANDIEN GARAPENENERAKO
LAGUNTZA UNITATEA

Jon Peña San José



Saioaren helburuak:

1-Apartekotasun Bikoitza azaltzen duen **marko teorikoa** ezagutzea eta ulertzea.

2-Gure irakasle profilan ikaslego honeri dagokion **hezkuntza erantzuna bereganatzea**.

1.1 Apartekotasun Bikoitza **kontzeptualizatzea**.

1.2 Apartekotasun Bikoitza duten ikasleen **ezaugarriak** aztertzea.

1.3 Apartekotasun Bikoitza duten ikasleen **hezkuntza premiak** identifikatzea.

2.1 Apartekotasun Bikoitza duten ikasleentzako **eskola erantzuna** aztertzea.

2.2 Gure irakasle profilean Apartekotasun Bikoitza duten ikasleen hezkuntza erantzunean lagungarriak liratekeen bitartekaritza kognitibo **estrategiak bereganatzea**.

Saioaren plangintza:

TESTUINGURAKETA

APARTEKOTASUN
BIKOITZA

IDENTIFIKAZIOA

IKASLE PROFILA

ESKUHARTZEA


Apartekotasun
Bikoitzeko ikasleen
bilakaera historiko
labur bat.



Kontzeptualizazioa:
definizioa, azalpen
eredua eta motak.




Nola antzeman?
Identifikazioaren
erronka zaila.



Ezaugarri
amankomunak
izendatzen
heterogeneitatearen
zeharkakotasunean.

→ 2eTDAH, 2eDEA
eta 2eAEN ikaslearen
perfila eraiki bidera.

3 Kasu praktiko labur
batzuk; JPptik
eskuhartze
zehatzera.





TESTUINGURAKETA

*Apartekotasun Bikoitzeko ikasleen
bilakaera historiko labur bat.*



Galderak:

- Noiztik hitz egiten dugu Apartekotasun Bikoitzaz?
- Zein ikuspuntutik abiatuko dugu gure begirada Apartekotasun Bikoitzeko ikasleei buruz aritu gaitezen?
- Zein ideia faltsu daude gizarte eta komunitatean ikasle hauen inguruan?

IDEIA FALTSUAK ETA AURREIRITZIAK

Zein ideia faltsu daude
gizarte eta
komunitatean ikasle
hauen inguruan?



“Breakfast Club” (John Hughes, 1985)

SALBUEPEN BIKOITZAREN IDEIA FALTSUAK



Mittoa

Errealitatea

- AGHek ikasketa zailtasunak erabat konpentsatzen dituzte.
- AGHak dituen ikasleak ezin dezake oinarrizko ikasketa sinpletan premiarik izan.
- AGH eta beste HLBP bat ezin daitezke momentu berdinean landu.
- Beste HLBPa lantzeak lehentasuna dauka AGH baino.
- Apartekotasun Bikoitzeko ikasleak ez dute curriculumaren aberasterik edota azeleraziorik behar.

Mitoen aurrean: *Betaurrekoak jarri!*

Nolakoa da errealitatea?


Kontzeptuarekiko **ikuspegi partekatu bat** eraiki gure hezkuntza **eskuhartzea gidatu** dezan.



Rowdy Piper betaurrekoak jartzen. "They Live" (Carpenter, 1988).

APARTEKOTASUN BIKOITZAREN bilakaera.


AGHen ikuspegi multidimentsionaletik.



LEHEN

APARTEKOTASUN BIKOITZAREN bilakaera.

AGHen ikuspegi multidimentsionaletik.



APARTEKOTASUN BIKOITZAREN bilakaera.



IKUSPEGI TRADIZIONALA

GAUR EGUNGO IKUSPEGIA
ERRENDIMENDU EREDUAK
(RENZULLI) ETA GARAPEN
ERE DUAK (GAGNÉ, SUBOTNIK,
ETAB.)

AGH dituzten ikasleen
PROFILAK (Neihart eta
Betts, 1988; 2010)

The Successful

The Challenging


The Underground

The Dropouts


**APARTEKOTASUN BIKOITZEKO
IKASLEAK**

The Autonomous Lerner.

APARTEKOTASUN BIKOITZA. Non gaude?



ikerketa. Elkind (1973). Ikasketa zailtasunak eta AGH zituen ikaslea. *Gifted with learning disabilities.*



Gallagher (1988). Salbuespen Bikoitza terminoa agertzen da. **Twice exceptionality.**

Hastapenak.

Whitmore eta Maker (1985). Ikasketa zailtasunak dituen ikaslea talentuduna izan daiteke → populazio baten hezkuntza erantzun gabekia agerian (Newman eta Sternberg, 2004).



Foley-Nicpon (2011). Apartekotasun Bikoitzean egindako ikerketak batu eta hezkuntza eta ikerketa bideratzeko marko partekatu bat ezarri.

Gaur Egun:

- *Twice exceptionality; dual exceptionality; 2e.*
- Salbuespen Bikoitza / Apartekotasun Bikoitza..
- Doble Excepcionalidad.



APARTEKOTASUN BIKOITZA

*Kontzeptualizazioa: definizioa, azalpen
eredua eta motak.*



Galderak:


- Zer da Apartekotasun Bikoitza?
Nola definitu genezake?
- Zein eredu erabili genezake
kontzeptua azaldu eta ulertzeko?
- Zer dakar kontzeptualizazio
horrek?
- Zein profiletan zentratuko gara?
Zergatik?

Zer da APARTEKOTASUN BIKOITZA?

- Gaur egun ere, erabateko adostasunik ez definizio zehatz bat lortzeko (Ronskley-Pavia, 2015)
- Argi dago: definizioak hurrengoak bete behar ditu: ikasleen heterogeneitateari erantzuteko adina **malgua** izan baina zerbitzuak eta hezkuntza erantzuna martxan jartzeko adina **zorrotza** ere.
- Gaur egun, onartuena, bai ikerketa bideratzeko zein eskoletan aritu gaitezen:
 - Apartekotasun bikoitza duten ikasleek errendimendu, gaitasun edo talentu handia izan dezakete arlo batean edo gehiagotan (matematika, zientziak, arteak, etab.), hezkuntza-premia berezi bat edo gehiago dituzten bitartean (Reis et al., 2014).
 - 1- AGH: *“errendimendu, gaitasun edo talentu handia izan dezakete arlo batean edo gehiagotan (matematika, zientziak, arteak, etab.)”*
 - 2- Beste HLBP: *hezkuntza premia berezi bat edo gehiago dituzten bitartean.*



2e ulertzeko AZALPEN EREDUA.




Irudikapena eraginkorra,
baina agerian zalantzak:

- Nola ulertzen ditugu AGH?
- Nola definituko genuke desgaitasuna?
- Zer da, hortaz, apartekotasun bikoitza?

Irudia. Ronskley-Pavia (2015)

2e ulertzeko AZALPEN EREDUA.



Irudikapena eraginkorra,
baina agerian zalantzak:


- Nola ulertzen ditugu AGH?
- Nola definituko genuke desgaitasuna?
- Zer da, hortaz, apartekotasun bikoitza?

2e ulertzeko AZALPEN EREDUA.



Nahitanahiezkoak:

- Apartekotasun Bikoitza **testuinguru sozial eta kultural zehatz batekiko** zehaztasuna egiten duen oinarri teoriko bat behar du.
- Ikaslea inguratzen duen kulturak eta gizarteak erabakitzen dute bere kategorizazioa; bai AGH zein beste HLBP.
- AGHak zer diren erabat desberdin izan daiteke beste gizarte baten ikuspuntutik testuingurua erabakigarria da identifikazio prozesuan, AGHak adjektiboa direlako, inoiz izenak, konparaketan sortutakoak (Freeman, 2005).
- Identifikazio prozesu amaierako pertsonaren pertzepzioa guztiz baldintzatuta dago faktore soziokulturalengatik.
- Beste HLBPekin berdin gertatzen da (Utley & Obiakor, 2001)
- Gizarte eta kultura eraldaketa oraindik ere beharrezkoa bai koexistentzia onarpena zein Apartekotasun Bikoitzaren ulermena gauza dadin (Ronskley-Pavia, 2015)



Ronskley-Pavia (2015)

Gizarte eta kulturaren eragina?

Hortaz, 2e ulertzeko eredua.


Talentua eta erronkak
INGURUNEAREN
ERAGINPEAN leudeke.



Zer da APARTEKOTASUN BIKOITZA?

Azken urteotan elkarlanean Euskadiko Ikastetxeotan abian dugun ikuspegi multidimentsionala.

AGH



78/2024 dekretuak adierazten diren HLBP-en zehaztasuna.

AEN

IBZ

TDA-H

Entzumen desg.


Ikusmen desg.

Mugimenduan desg.

Zer da APARTEKOTASUN BIKOITZA?



AGH



AEN

IBZ

TDA-H

Entzumen desg.

Ikusmen desg.

**Mugimenduan
desg.**

Gure eskolan ikasle gehien hartzen dituzten HLBPak; ikerketan nabariak (Foley-Nicpon, 2011)

TALENTUAK ETA ERRONKAK. *Horia, urdina eta berdea.*




Talentu espezifikoek eta erronka konplexuek sortutako ikasle profila.

Baum (2017). Egokitua.




IDENTIFIKAZIOA

*Nola antzeman? Identifikazioaren
erronka latza.*



Galderak:

- Nola aurkezten dira 2e ikasleak gure ikasgeletan? Zer da *masking* fenomenoa?
- Nola egin beharko genuke detekzioa?
- Zergatik ez dira baliagarriak ikuspegi tradizionalarekin abiatutako ebaluaketa psikopedagogikoak?
- Zer ondorio dakar horrek gure irakasle-tutore begiradarekiko?



Nola aurkezten zaigu gure ikasgelan?




- Ezkutatzearen fenomenoa - *Masking phenomenon* (Reis et al, 2014) . HIRU egoera posible.

1


2

3

Nola aurkezten zaigu gure ikasgelan?



- *Masking phenomenon (Reis et al, 2014)*



Christopher Reeve (Superman, 1978)



Nola aurkezten zaigu gure ikasgelan?


Ezkutatzearen fenomenoak (“*masking phenomenon*”). HIRU egoera posible.



**AGHeK beste HLBP
ezkututzen dute.**

2

3

1- Adibidea:

Xabier. LH3.	Eskola historia:
	<ul style="list-style-type: none">● HHan AGH identifikatua.● Aurten, idatz irakurketako prozesu lexikoetan oztoporen bat aurkitzen ari da. Hala ere, kideekin alderatuz, oso aurreratua doa.



DISLEXIA

- Aberaste Curricularik etorkizunean ez berdinen errendimenduaren pareko erakusten hasi delako.
- Idatz irakurketan eskuhartzea berandu kideen pare baitabil gehiengoetan.



Nola aurkezten zaigu gure ikasgelan?


Ezkutatzearen fenomenoa (“*masking phenomenon*”). HIRU egoera posible.



AGHeK beste HLBP
ezkututzen dute.

HLBP batek AGH
ezkututzen dituzte.


3

2- Adibidea:

Iruene. LH5.	Eskola historia:
	<ul style="list-style-type: none">● LH4n IBZ dislexia diagnostikoa.● Aurreko hiruhilabeteen, matematika proiektuan pitagoras kalkulatu egin zuen diagonal baten luzeera ateratzeko.



AGH



- Talentua potentziatzeko aukera eza.
- Idatz irakurketan eskuhartzea lehentasuna.



Nola aurkezten zaigu gure ikasgelan?


Ezkutatzearen fenomenoak (“*masking phenomenon*”). HIRU egoera posible.

AGHeK beste HLBP
ezkututzen dute.


HLBP batek AGH
ezkututzen dituzte.


**Bien arteko erlazio
horretan bi HLBPak
ezkutuan dihardute.**

3- Adibidea:



AGH
AEN

losu. LH1.	Eskola historia:
	<ul style="list-style-type: none">• Azterketetan eta klase zereginetan eta proba objektiboetan emaitza arruntak. Jokabidea erregulatzeko eta antolaketa eta denbora kudeatzeko premiak.• Zientzian ezagutza eta jakinmin handia (Naturan: animaliak eta landareak). Proiektuetarako ideia zoragarriak baina planifikazioa premia handiak.




- Talentua potentziatzeko aukera eza.
- Beste HLBPan eskuhartzerik ez.


IDENTIFIKAZIO EGOKIAREN ERRONKA.



- **Zenbat ikaslek apartekotasun bikoitza? → *Masking*.**
- Identifikazioa konplexua; Zaila taldeko screening probatan ikasle hauen detekzioa eman dadin. Ez dago protokolo estandarizaturik (Reis et al., 2014)
 - Gaur egun ez dago baieztatutako proba psikometriko espezifikorik 2e-rako.
- Wisc-V. CI-a ezin daiteke erabakigarria izan (Foley Nicpon, 2011; McCallum et al., 2013; Maddocks, 2019; Maddocks, 2019).
 - Proben emaitzak interpreta ezinak izan daitezke.
 - Diskrepantzia desbideratze estandar batekoa ICG eta FSIQ artean (Assouline et al., 2010) ; Diskrepantzia arrazonamendu eta hizkuntza vs Lan memoria eta prozesamendu abiadura.
- Beste probetan indikadoreak azalareztan ari dira. Adb: BRIEF Eskala. Materialen antolaketan 2eTDAH>TDAH premia gehiago.



Kranz et al. (2024)



Kranz et al. (2024)


IDENTIFIKAZIO EGOKIAREN ERRONKA.




- Norbanako Ebaluazio psikopedagogikoa ezinbestekoa da, abilezia probetatik haratago doana.
 - Proba estandarizatueta **azpiroben emaitzek**, ikasgelako jokabide eta errendimenduaren ezaugarriek, egindako produkzio eta marrazkiek, galdetegiek, elkarrizketek, etab. informazio oso esanguratsua emango digute.
 - 2e-aren **susmoa** zegoen lagin batean (deribazio egoera batetik zetozenak) → Ikerketa: WISC-V %55 Interpreta Ezina → Horietako 85% 2e (Romano, 2024)
 - Konbinaketa: diskrepantzia ereduak + errendimendua + oinarrizko defizitak (Maddocks, 2018).

ZEIN EGOERATAN UZTEN GAITU HONEK?

- Antzematea, lehen detekzioa irakasleengan dugu.
- Begirada entrenatu **diskrepantzia eta premia horiek ikusteko** → indikadoreak ikusterakoan, egokitzapenak martxan jarri eta norbanako ebaluazio psikopedagogiko prozesuari ekin.



ZEIN EGOERATAN UZTEN GAITU HONEK?



Loisek ez du antzematzen;
ikusleak bai.

Christopher Reeve
(Superman, 1978)


ZEIN EGOERATAN UZTEN GAITU HONEK?





IKASLE PROFILA

*Ezaugarri amankomunak izendatzen
heterogeneitatearen zehakakotasunean.*



Galderak:


- Profil bakarraz hitz egin genezake Apartekotasun Bikoitzeko ikasleekiko?
- Zein ezaugarri amankomun nabarmendu genitzake?
 - Arlo akademikoan?
Kognitiboan?
Sozioemozionalean?
- Zein premia dituzte beraz 2e ikasleek? Nolako hezkuntza erantzuna jarri beharko genuke martxan ikasleekiko?

2e EZAUGARRI AMANKOMUN ESANGURATSUAK.

- Apartekotasun Bikoitza duten ikasleek **oso profil heterogeneoa** aurkeztu dezakete. Hala ere, hainbat ezaugarri amankomun antzeman daitezke 3 profilen artean:

- Aztertu dezagun “Checklist for recognizing Twice Exceptional Children” (Silverman et al., 2019) item orokor batzuk.

- Ez da screening eskala bat / ez da baieztatutako instrumentu bat. Irakasle eta profesionalentzako gidatzat hartu.



Zein patroi errepikatzen da item hauetan?

Please Note: This is **NOT** a validated instrument

Gifted Development Center a service of
The Institute for the Study of Advanced Development

Checklist for Recognizing Twice Exceptional Children

Linda Silverman, Barbara Gilman, Deirdre Lovecky & Elizabeth Maxwell

Child's Name: _____ Gender: M ___ F ___
 Birth Date: _____ Parent _____ Teacher _____ Counselor _____
 Your Name: _____ Date: _____

INSTRUCTIONS

The purpose of this checklist is to assist you in recognizing some common characteristics of gifted children with learning disabilities. This is **not** a diagnostic tool. This checklist has **not** been validated and there are no norms. If a child fits many of the characteristics, it would be wise to refer the child for assessment.

Please answer each item as well as you can. Mark "Sometimes" if you have **ever** observed this behavior.

Item	General Characteristics of the Twice Exceptional Learner	Sometimes/Often	Not Observed
1	Appears smarter than grades or test scores suggest		
2	Has a sophisticated speaking vocabulary but poor written expression		
3	Participates well in class discussions but does not follow through with implementation		
4	Has uneven academic skills, inconsistent grades and test scores		
5	Does well when given sufficient time, but performs poorly on timed tests and takes much longer to complete assignments and homework than other students		
6	Studies very hard before tests, gets good grades on tests but soon forgets most of the learned information. Needs to restudy it for later tests.		
7	Has excellent problem-solving skills, but suffers from low self-esteem		
8	Excels in one area or subject, but may appear average in others		
9	Performs well with challenging work, but struggles with easy material		
10	Is better with reading comprehension than with phonetic decoding of words		
11	Is better at math reasoning than computation		
12	Has wonderful ideas, but has difficulty organizing tasks and activities		
13	Has facility with computers, but illegible or slow handwriting		
14	Has a great (sometimes bizarre) sense of humor and may use it to distract the class		
15	Thrives on complexity but has difficulty with rote memorization		
16	Understands concepts easily and gets frustrated with the performance requirements		
17	Fatigues easily due to the energy required to compensate.		
Comments:			
Item	Visual Processing Weaknesses	Sometimes/Often	Not Observed
18	Struggles with reading		
19	Mixes up other and mirror images		

2e EZAUGARRI AMANKOMUN ESANGURATSUAK.

- Notek edo azterketetako emaitzek iradokitzen dutena baino adimentsuagoa dirudi.
- Ahozko hiztegi sofistikatua du, baina idatzizko adierazpen pobreagoa.
- Ondo parte hartzen du gelako eztabaidetan, baina ez du aurrera egiten inplementazioarekin.
- Ikasketa trebetasunetan desorekak ditu, eta notak eta azterketa emaitzak ez dira sendoak.
- Errendimendua ona da denbora nahikoa ematen zaionean, baina emaitza txarrak lortzen ditu kronometratutako probetan, eta beste ikasle batzuek baino denbora gehiago behar du zereginak eta etxeko lanak egiteko.
- Azterketak baino askoz lehenago ikasten du, kalifikazio onak lortzen ditu, baina laster ahazten du ikasitako informazio gehiena. Berriz aztertu behar duzu ondorengo probetarako.

2e EZAUGARRI AMANKOMUN ESANGURATSUAK.



- Arazoak konpontzeko gaitasun bikainak ditu, baina autoestimu baxua du.
- Arlo edo irakasgai batean nabarmentzen da, baina batez bestekoa eman dezake beste batzuetan.
- Ondo egiten du erronkak suposatzen dioten lanen aurrean, baina zailtasunak ditu zeregin errazarekin.
- Ulermenean hobea da hitzen dekodifikazio fonetikoan baino.
- Arrazoiketa matematikoan kalkuluan baino hobea da.
- Ideia zoragarriak ditu, baina lanak eta jarduerak antolatzea kostatzen zaio.
- Ordenagailuekin erraztasuna du, baina idazkera irakurtezina edo oso motela du.
- Umore handia du (batzuetan arraroa), eta klasea distraitzeko erabil dezake.
- Konplexutasunarekin ondo moldatzen da, baina zailtasunak ditu memorizazio mekanikoarekin.
- Kontzeptuak erraz ulertzen ditu eta errendimendu-eskakizunekin zapuzten da.
- Erraz nekatzen da, konpentsatzeko behar duen energia dela eta.






Zein aspektu zehatzei egiten diote erreferentzia?

1- Norbere buruarekiko konparaketan alde handia gaitasun eta errendimendu artean (arrazonamendu eta hizkuntza > MT, VP, etab.).

2- Funtzio Exekutiboetan eta prozesamendu abiaduran premia espezifikoak.

- Lan Memorian, Planifikazioan, Antolaketan, Erregulazioan, Prozesamendu Abiaduran, etab.





KONPARAKETA

Zer dira Funtzio Exekutiboak?

Zer dira?

- Norberaren **jokabidea kontrolatzeko eta autoerregulatzeko beharrezkoak** diren gaitasun kognitiboen multzoa.
- Helburu batera zuzendutako ekintza-plan bat ezartzea, mantentzea, gainbegiratzea, zuzentzea eta lortzea ahalbidetzen dute.
- Jokabidea helburuak lortzera bideratzeko, arazo konplexuak eta berritzaileak konpontzeari arreta berezia jarrita.
- Ikasiak dira: estimulatu daitezke, entrenamenduak horiek eraldatzen ditu;




“Airplane” (Zucker, 1980) filmaren kontrol dorrea. Filmaren Funtzio Exekutiboak.



Hegazkina #1



Hegazkina #2





Aireportuaren kontrol dorrea.

Nola aurkezten dira ikaslearengan? Zeintzuk dira?

Horien artean:

- Plangintza
- Antolaketa
- Erabakiak hartzea
- Iraunkortasuna
- Malgutasun kognitiboa
- Inhibizioa
- Emozioen erregulazioa
- Barne-hizkuntza eta metakognizioa
- Lan memoria
- Etab.



Hauetarako testuinguruaren egokitzapena ezinbestekoa.

Hezkuntza erantzuna ikasgelan. Egokitzapenak.

Premia espezifikoa	Sarbidean egokitzapenak
<p>Lan Memorian:</p> <ul style="list-style-type: none">● Agindu konplexuak edo diskurtso luzeekin adierazitakoak ahazten ditu.● Kontzentrazio eten eta gero ez daki zer egin behar duen.● Informazioa mantentzean behar espezifikoak.	<p>Lan Memorian:</p> <ul style="list-style-type: none">● Agindu sinpleak eman, banan banan.● Instrukzio edo zereginak irudiz ere eman (txartelak, arbelan, proiektorean, etab.)● Denbora gehiago utzi informazioa prozesatzeko.
Klase egoera:	
<p>“Izenburua asmatu, gorriz azpimarratu eta gero marraztu.” Ikasleak titulua bakarrik idazten du eta zain geratzen da.</p>	<p>Aginduak arbel edo proiektorean idatzita jarri, hitz gako edo piktogramen bidez. Zereginak pauso laburretan banatu (“1. titulua, 2. azpimarratu, 3. marraztu”). Agindua errepikatu eta ulermena egiaztatu (“zer egingo duzu lehenik?”).</p>

Hezkuntza erantzuna ikasgelan. Egokitzapenak.

Premia espezifikoa	Sarbidean egokitzapenak
<p>Planifikazioa:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zereginan egin beharrekoak era autonomoan antolatzeko zailtasunak.• Azterketa egiterakoan premiak• Dituen ideiak aurrera ermateko zailtasunak.	<p>Planifikazioan:</p> <ul style="list-style-type: none">• Zereginan eman beharreko pausoak banatu.• Azterketa zatika eman (ariketa bat bukatu, hurrengoa egin)• Autoinstrukzioetan entrenamendua. Modelatzea.• Sekuentzia bisualak erabili.
Klase egoera:	
<p>Ipuin bat idatzi nahi du eta ideia bikainak ditu, baina ezin du hasi: esaldi solteak idazten ditu, koherentziarik gabe.</p>	<p>Gure narrazio txantiloia hartu eta bere egiteko erara egokitu. Hasiera, arazo, korapilo eta amaieran hainbat galdera gehigarriak txertatu: <i>zer gertatuko da hemen? Zein pertsonai daude eszena hoentan?, etab.</i> Ahoz, idatziz, marrazki borradoreak eginez, etab.</p>

Pictoagenda



lectura



preguntas



hablar



escribir



cuento









patio



¿CÓMO ME PREPARO PARA HACER LAS TAREAS?



1- Miro mi horario	
2- Preparo mi lugar de estudio.	
3- Pongo sobre la mesa sólo el material que necesito: cuaderno, estuche, regla, rotuladores, pegamento,....	
4- ¿Qué tarea tengo que hacer? Leo la tarea con atención.	
5- ¿Lo he entendido?	
6- Empiezo a trabajar.	

¿QUÉ HAGO SI ME PONGO NERVIOSO?



1- Me siento en mi silla especial	
2- Respiro tranquilamente por la nariz y echo el aire por la boca.	
3- Lo repito hasta que <u>NO</u> esté nervioso.	
4- ¿Me siento más tranquilo? ¡Muy bien!	

Nire Proiektua. 000 ▾

Zereginak. ...

Irakasleak emandako testua irakurri.

Haziak ekarri. ✎

Landareak landatu.

Ortuko argazkiak atera.

Argazkiak kideekin partekatu

+ Añade una tarjeta 📅

Jon ...

"Gure landareak" bideoa ikusi.

+ Añade una tarjeta 📅

compleatdo ...

✓ 2 landare mota aukeratu.

✓ Landareak marraztu.

+ Añade una tarjeta 📅

Figure 13.1. Debra's first web.





Figure 13.2. Debra's second web.




Baum (2019)



2e Ezaugarri sozioemozionalak.

- **Frustrazio** handia dute haien gaitasun eta errendimendu arteko diskrepantziagatik. **Autokontzeptu** baxua kideekin alderatuta; jokabide doikuntza, zorientasuna eta asetze (Foley-Nicpon et al., 2012).
- **Autoestima** baxua.
- **Konfidantza** baxua eta jarrera negatiboa eskolarekiko.
- Konziente dira haien egoeraz.
- Jarraitutasun handia erakusten dute.
- Uzkur agertzen dira besteen aurrean.
- Batetik, emozio negatibo maila handiak, jarrera negatiboak, autopertzepzio baxua eta erlazio interperstonal desagokiak. Bestetik, motibazio maila altuak, erresilientzia handia eta afrondamendu abileziak eta izaera ezaugarri positiboak dituzte (Beckman eta Minnaert, 2018)
- Etab.



Hezkuntza erantzuna ikasgelan. Egokitzapenak.

Premia espezifikoa	Sarbidean egokitzapenak
<p>Erregulazio emozionala.</p> <ul style="list-style-type: none">● Akatsen aurrean egoera sozioemozional desegokia.● Motibazioa behera zereginan (azterketan, lanean, etab.) esperotakoa ez jasotzerakoan.● Frustrazioa kudeatzeko zailtasunak.	<p>Erregulazio emozionala.</p> <ul style="list-style-type: none">● Baieztapen emozionala.● Prozesu kognitibo egokiak garatu (pentsamendu automatikoak eta distortsio kognitiboak identifikatu eta aldatu).● Prozesua goraiatu, ez azkeneko emaitza (Zer gorapitazen du nik proposatutako ariketak?).
Klase egoera	
<p>Mate eragiketa bat gaizki badu ez zaio “perfektua” iruditzen, haserretu egiten da eta bizi duen egoera emozionalak ez dio aukera ematen klase amaierako jolasarekin disfrutatzeke.</p>	<p>Pentsamendu automatiko patroik horiek identifikatu behar ditugu. Nola? Baieztapena + eskuhartze emozional zehatza.</p>

ETA, BATEZ ERE, TALENTUAREN GARAPENA.

Gure ardatza:

Talentuaren garapena eta ahulezien indartzea batera joan behar dira (Baum, Schader, & Hébert, 2014; Foley Nicpon & Assouline, 2015).

Hezkuntza erantzuna orokorra.

- Aberaste Curricularra.
- Azelerazio Curricularra. Maila bitarteko ikaskuntza.
- Eskolako Proiektuetan partehartzea.
- Talentuaren garapenerako proiektuetan partehartzea.
- Interesekiko erabateko lotura duen eskolaz kanpoko ekintzetan partehartzea.
- Mentoretza programatan partehartzea.
- Beharrezko baliabide pertsonal eta materialen esleipena.



2eIBZ

*AGH eta
Dislexia/Disgrafia/Diskalkulia
/HGN*



Galderak:

- Zeintzuk lirateke ikasle hauek lituzketen **ezaugarri akademiko, kognitibo eta sozioemozionalak?**
- Ezaugarri horien ildotik, **zein hezkuntza premia espezifiko** izango lituzkete?

2eIBZ (AGH + Dilexia/Diskalkulia/Disgrafia/HGN)



- Hitzeko abilezia altuak: kontzeptualizazio, ulermen eta arrazonamenduan (Foley-Nicpon, 2011; Kranz et al., 2024)
- Ez-hitzeko abilezietan konpetentzia baxuagoa: abilezia espaziala, dekodifikazioa, lan memoria auditiboa eta prozesamendu abiadura.
- Estrategia metakognitiboak (ikasleen arazoak konpontzeko eta ezagutza egoera berrietara aplikatzeko gaitasunak):
 - Metakognizio-estrategiak erabiltzeko joera handiagoa dute, baina gidantza behar dute horiek egoki erabiltzeko.
- Eskola esperientzia negatiboek ondorioak dakartzate haien egoera sozioemozionalean: porrota sentimenduak, norbere efikazia baxua, depresioa, etab.
- Dislexia: 2eDislexia ikasleen prozesamendu defizitak dislexiadun ikasleen parekoa da. (Kranz et al., 2024).
- Antsietatea, haserrea edota frustrazioa kudeatzeko, baita erresilientzia lantzeko, aholkularitza ezinbestekoa da.



Galderak:

- Zeintzuk lirateke ikasle hauek lituzketen **ezaugarri akademiko, kognitibo eta sozioemozionalak?**
- Ezaugarri horien ildotik, **zein hezkuntza premia espezifiko** izango lituzkete?



2e

TDA-H

AGH eta TDA-H

2eTDAH (AGH + TDAH)



- Errendimendu akademiko handia izan dezakete zereginak eskatzen duena haien atentzio baliabideak gainditzen dituen arte.
- TDAH eta AGH-en ondorio kondultuala (kitsigarritasunak) berdinak izan daitezke momenturen baten, baina hurrengo galdera dugu abiapuntu: zergatik jokabide hori? Bakoitzaren kasuan desberdina izango da arrazoia.
- 2eTDAH intentsitate emozional handiagoa TDAH taldea eta AGH taldea baino.
- Errendimendu baxurako joera.
- Erronka gustoko dute eta arrakasta akademikoa izateko talentu area espezifikoak garatu behar dira. .
- 2eTDAH autoestima eta autokontzeptu baxuagoa AGH baino. Poztasun baxuagoa.(Foley-Nicpon et al., 2012)

2eTDAH (AGH + TDAH)



- Desberdintasun esanguratsuak 2eTDAH lan memoria premia askoz gehiago AGHko ikasleak baino, baina sormen gehiago (Fugate et al., 2013).
- Agindu laburragoak, gidantza gehiagorekin (azpimarratu garrantzitsuena, instrukzioak plazarazi, etab.) eta feedback-a (autoebaluazioa gauzatu, prozesua monitorizatu, etab.) iaksketan lagundu (Zentall et al., 2001).
- Erronka galderak eta gaiak eta prozesu kognitiboak era estrukturatuan eraman ditzaten gidantza eskaini estrategia oso baliagarriak (Lee eta Olenchak, 2015)
- 2eTDAH, TDAH gabeko AGH iaksteengandik aldentzen direla dirudi, jokabide hiperaktibo eta inpultsibo espezifikoei dagokienez. Irigarri zen bezala, TDAHaren hiru dimentsioetan (IA, HI eta TDAH totala) taldeen arteko aldeak ikusi ziren: TDAH duten bi taldeekin (TDAH eta 2eTDAH), eta TDAHrik gabeko bi taldeek baino puntuazio altuagoak lortu ziren (kontrola eta AGH). (Gómez et al., 2019)
 - 2eTDAH altuagoa: HIren hiru sintoma espezifikotan (i.e., 12 [modulate motor activity], 15 [modulate verbal activity] and 16 [reflect on questions])(Gomez et al., 2019).



2e AEN

*AGH eta Autismo
Espektoaren Nahastea.*



Galderak:


- Zeintzuk lirateke ikasle hauek lituzketen **ezaugarri akademiko, kognitibo eta sozioemozionalak?**
- Ezaugarri horien ildotik, **zein hezkuntza premia espezifiko** izango lituzkete?

EZAUGARRIAK: 2eAEN


Ikerketa; Nola bizi dute eskolaratzea?

2eAEN duten ikasleek adierazitako eskuhartze elementu esanguratsuak. Egokitua. (Reis eta Renzulli, 2025)


Instrumentuak eta esperientziak erabili **indarguneak eta interesak** identifikatzeko.
Indarguneak erabili motibazioa pizteko eta kideekin erlazio positiboak sortzeko.



Erregulazio emozional positiboa landu.
Osasun mentalekin lotutako ohitura osasungarriak garatu.
Estresaren kudeaketa landu..
Erlazio sozial berriak garatu.
Kideengandik eragin positibotik ikasi.



Kurtso aurreratuetan parte hartzeko aukera izatea.
Haien interesekin guztiz erlazionatutako eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartu.



EZAUGARRIAK: 2eAEN ¿Nola bizi dute eskolaratzea?

2eAEN duten ikasleek adierazitako eskuhartze elementu esanguratsuak. Egokitua. (Reis eta Renzulli, 2025)

Ikasketa soziala.
Kideen jokabide eta jarreragatik ikasi eta imitatu.
Aislamendua gutxitu.
Antsietate sozialaren kudeaketan entrenatu eta autoebalatu.




Erronka edukiak aurkeztu.
Ikasketa pertsonalizatua haien indargune eta ahuleziak erantzuteko.
ikasketa **aktiboa**, interesekin erlaizonatutako proiektuetan.



Laguntza eskatzen irakatsi.
Beste helduekin (mentore, irakasle, aholkulari, etab.) **nola komunikatu** irakatsi.



Interesak garatu.
Funtzio exekutiboak hobetu.
Talentuaren garapenean jarri fokua.



EZAUGARRAK: 2eAEN

- 2eAEN vs AGH. Irakasleen eta gurasoen pertzepzioa: 2eAEN ikasleek zailtasunak prozesamendu abiaduran, abilezia moldagarrietan eta funtzionamendu psikologikoan (Doobay et al., 2014)
- Behe mailako pentsamendu prozesuak (lan memoria eta prozesamendu abiadura) garrantzi handia daukate hauen errendimendu arrakastatsuan (Assouline et al., 2011)
- Ezinbestekoa ikasleen partehartzea indarguneak garatzeko aberaste eta azelerazio prozesuetan (Assouline et al., 2011)
- Arazoa/egoera konpontzera bideratuta
- Iraunkorrak
- Konbentzionalismoek ez diete eragiten haien erabakiei eta iritziei.
- Objektuak behatzen dituzte, eta gizabanakoari dagokionez dituzten funtzioak aztertzen dituzte.
- Ikasle biso-espazialak




Erantzun zehatza ikasgelan.

JPPTik eskuhartzera.

Ikus ditzagun aurkeztutako
premiak eta erantzun estrategiak
adibide zehatzetan.

Egokitzapenak martxan jartzeko taula.




	METODOLOGIA	EBALUAZIOA	EDUKIAK
IKASTETXE			
IKASGELA			
IKASLE			




Kasu Praktikoa #1

- Luken. 8 urte
LH3
- Premiak:
 - Natura oso gustoko du eta landare eta animalien inguruan bakarkako hitzaldi luzeak emateko gai da.
 - Argazki kamerarekin argazkiak ateratzen ditu; etxean landare eta animalien sailkapena egiten ari da, haien ezaugarriak adieraziz.
 - Idatz-irakurketan premia handiak ditu. Oraindik kontzientzia fonologikoa guztiz bereganatu gabe. Hitz eta pseudohitzen irakurketan jarotasun gutxi.







Zer jarri dugu bere kurtso hasierako JPPan?




Metodologia eta estrategietan:

- Natura Zientzietako programazioan egokitzapena: Landareen gaian GURE ORTUA proiektua egingo dugu.
- Euskara eta Lenguan hitzaldi eta eztabaidak antolatuko ditugu azalpenak, argudiaketa eta iritziak lantzeko.
- Eskuhartze indibiduala izango du kontzientzia fonemikoa lantzeko (PT - katamotz programarekin).








Malgutasuna lehenetsi. Helburu berdinak lortzeko bide malguak eman: ikerketa, berrikuntza, esplorazioa eta jakinmina sustatu dadin.



Pentsatu: zein da zeregin honekin lortu nahi dudana?

Jakinmina, esplorazioa eta ikerketa.


Programazioko edo liburuko zeregina	Premiei erantzuten dion alternatiba
<ul style="list-style-type: none">● Hurrengo figura geometrikoen perimetroa eta azalera kalkulatu.	 Futbol zelaia sortu, patioan txapa jolas txapelketa antolatu dezagun.
<ul style="list-style-type: none">● Landareen testua irakurri eta galderak erantzun.	 Ortuan landatuko ditugun landareen ikerketa.
<ul style="list-style-type: none">● Oporren inguruko narrazioa egin.	 Eskolako aldizkari/blog/irrasaioa sortu eta horretan parte hartu (elkarrizketak, narrazioak, azalpen testuak, berriak, ikerketak, etab.).



Kasu Praktikoa #2

- Garazi. 6 urte LH1.
- Premiak:
 - Materialen antolaketan.
 - Planifikazioan.
 - Zeregin konplexuak bideratzeko.
 - Ideia handiak zientzia proiektuak egiteko.

Zer jarri dugu bere kurtso hasierako JPPan?




Metodologia eta estrategietan:

- Ikasgelan irudiak erabiliko dira espazio eta zereginak irudikatzeko; baita sekuentziak prozedurak bideratzeko.
- Agindu sinpleak lehentasuna izango dute, horien sekuentzia gero osatzeko.
- Azterketetan banan banan emango dizkiogu ariketak.
- Ikaslearekin autoinstrukzioetan entrenamendua bideratuko da bere jokabidea erregulatu dezan.

Urrian, tutoreak jokabide eta gertaera batzuk antzeman ditu.

- Ohikoan, 16:30ean, jaso eta etxera joateko momentuan, Lukenek dana mahaiko kaxoian sartu, motxila itxi eta korrika aterazten da gelatik.; maiz, Lukenek liburuak ikasgelan uzten ditu eta ezin ditzake etxerako lanak egin, ezta ikasi ere.; agendan apuntatzeko eskatzen diogunean, esaldi solteak eta ez dagokion egunetan idazten du.
- Proiektu ideia bikainak ditu baina horiei ekiteko premia handiak (antolaketa, ordena, planifikazioa, pauso konplexuen desglosea, etab.)




Nolako hezkuntza erantzuna behar du Lukenek?

1. Ikasgela egokitzapenak planifikazioarekin lotutako funtzio exekutiboenaganako erantzun positiboa izan dezan.
2. Autoinstrukzioetan entrenamendua.


1- Ikasgela egokitzapen errazak (testuingurua):

- Azken saioan 5-10 minutu eman agenda eta eraman beharreko materialak adosten.
- Piktograma sekuentzia txartelak utzi kontuan hartu beharreko pausoak zehaztuz.
- Agenda egokitu bere premietara erantzuteko: piktogramak, kolore sistema, etab.
- Egunean zehar, ermana beharreko materialak “irteera kaxoi” batean uztea.



2- Autoinstrukzioetan entrenamendua.


- Meichenbaum-ek eta Goodman-ek (1971) garatua. Helburuak:
 - Zeregin batean gure egiteko era hobetu.
 - Autokontrola hobetu.
 - Problemen ebazpena hobetu.
- Gure jokabidearengan eragin handia: zereginak nola antolatu, pentsatu eta egin; problemei nola aurre egin.
- Entrenamenduak ikasleek dituzten autoinstrukzio desegokiak aldatzean datza.
- Lukenen kasuan, agenda erabiltzeko egin genezake; baita motxila antolatzeko edota proiektu horiek bideratzeko.



2- Autoinstrukzioetan entrenamendua. FASEAK.

1

Modelatze kognitiboa: ereduak ekintza egiten du, autoinstrukzioak bere buruari ozen emanez.



2

Ageriko kanpo-jarraibide a: Ikasleak ekintza egiten du helduak instukcioak ematen dizkion heinean. *Guía externa en voz alta.*



3

Berezko jarraibide nabarmena. Ikasleak ekintza bideratzen du bere buruari autoinstrukzioak ozen emanez.




4

Berezko jarraibide nabarmena, gradualki ezabatuko dena. *Autoinstrucciones enmascaradas.* Ikasleak baxu ematen ditu autoinstrukzioak




5

Autoinstrukzio estalia. Ikasleak ekintza bideratzen du ebre buruari autoinstrukzio estaliak emanez.



2- Autoinstrukzioetan entrenamendua. FASEAK.

1




2




3



4



5



Zein aspektuekin egingo genuke hauxe?

- Automazitatutako pausoak eskatzen dituen prozesu orokin.
- *Adb: Motxila prestatu; agenda erabili; proiektu bat diseinatu edo hasierako pausoak finkatu; etab.*

TESTUINGURUAREN EGOKITZAPENA.

¿CÓMO ME PREPARO PARA HACER LAS TAREAS?



1- Miro mi horario	
2- Preparo mi lugar de estudio.	
3- Pongo sobre la mesa sólo el material que necesito: cuaderno, estuche, regla, rotuladores, pegamento,....	
4- ¿Qué tarea tengo que hacer?	
Leo la tarea con atención.	
5- ¿Lo he entendido?	
6- Empiezo a trabajar.	

¿QUÉ HAGO SI ME PONGO NERVIOSO?




1- Me siento en mi silla especial	
2-Respiro tranquilamente por la nariz y echo el aire por la boca.	
3- Lo repito hasta que <u>NO</u> esté nervioso.	
4- ¿Me siento más tranquilo? ¡Muy bien!	



Kasu Praktikoa #3

- Martín. 7 urte LH2.
- Premiak emozioen kudeaketan eta pentsamendu automatiko patroietan.

Zer jarri dugu bere kurtso hasierako JPPan?




Metodologia eta estrategietan:


- Hezkuntza emozionalari (batez ere autoezagutza eta autoerregulazio elementuei) lehentasuna emango zaio Tutoritza Planean.
- Ikaslearekin Tutoritza Indibidualak ezarriko dira emozioen kudeaketan laguntzeko.

Urrian, tutoreak jokabide eta gertaera batzuk antzeman ditu.

- Martinek mate zereginetan, kalkulu sinplean, akats sinpleak egin ditu eta horrek problemaren ebazpena oztopatzen du. Problema osoa borratu du. Martinen erreakzioa: negarra eta bere buruarekiko haserrea.
- Patioan kartetan jolasten ari ziren eta bat batean Martinek jolasteari utzi dio irabazi ez duelako. “Ez da bidezkoa; sekulako huts egitea egin dut!”
- Kahoot bat egin dugu eta Martinek akats bat egin du galdera ondo irakurri ez duelako; segidan, hurrengo hirurak ez ditu erantzun.



Behaketa fasea martxan jarri. Zer dago horren atzean?



Aurrekaria	Gertaera	Ondorioa	Kudeaketa	


Gure hipotesia perkezionismo desegoki baten garapena egon dela da. Nolako hezkuntza erantzuna behar du Martinek?

1. Tutore edo erreferentziazko helduaren ulermen eta onarpena.
2. Eskuhartzea ekintza horien atzean dauden pentsamenduak kolokan jar ditzan.

1. Tutore edo erreferentziazko helduaren ulermen eta onarpena.

- Nola? Teknika: **BAIEZTAPEN EMOZIONALA.**

- Zer da?
 - Bestearen sentimenduak identifikatu eta onartzeko prozesua; enpatiarekin bideratzen da eta bestearen sentimenduak ez ditu epaitzen.
- Zer eskatzen du?




Egoera: Martinen hitzak irakasleari azterketa jasotzerakoan:

“Aste osoa ikasten egon eta gero akats tonto hauek ikusten ditut eta esfortzua pena merezi izan duen galdetzen diot neure buruari”



“Lasai, hurrengoan hobeto aterako da” edo “Tira, super ondo dago. Akatsak ikasteko aukera dira, hori normala da”.



“Nola ez naiz lehenago konturatu akats hauetaz. Beti berdina gertatzen zait.”



- Irakasleak ez dio egoerari erreparatu.
- Ikasleak hurrengo egunean ziurrenik ez du pentsamendua esplizituki adieraziko.

**PROFESSOR
XAVIER IS A
JERK!**




BAIEZTAPENA

Martinen hitzak irakasleari azterketa jasotzerakoan:


“Aste osoa ikasten egon eta gero akats tonto hauek ikusten ditut eta esfortzua pena merezi izan duen galdetzen diot neure buruari”



“Ulertzen dut horrek **frustrazio** sentimendua dakarrela. Asko ikasi duzu eta egindako esfortzuaren emaitzak ez dituzu jaso”.



“Gainera gai bakoitzarekin eskema berriak egin nituen, hobeto ikasi ahal izateko; eta...”



- Bere emozioen baieztapena egiterakoan, ikaslearen ulermena eta onarmena gauzaten dugu.
- Hurrengo egunetan, bere pentsamendu horiek gurekin partekatzeko esfortzua egingo du.

Eskuhartzea.


Erlazio hori konfidantzakoa denean, gertaerak interpretatzeko eran murgildu gintezke, eta hortxe egongo da Martinen **perfekzionismo** desegokiaren arrazoia.




GERTAERA



Azterketan lau huts egite,
ikasleak ebazten dakizkienak.




EMOCIÓN



Frustrazioa: 10/10
Atsekabea: 8/10



ACCIÓN



Hurrengo saio osoa honen
inguruan pentsatu eta
proiektua alde batera utzi

PROZESU KOGNITIBOETAN JARDUN ¿Egokiak dira?



GERTAERA



Azterketan lau huts egite, ikasleak ebazten dakizkienak.




PENTSAMENDUA



“Ez zait inoiz perfektu aterako”



EMOZIOA




Intentsitatea?

Frustrazioa: 10/10
Atsekabea: 8/10



EKINTZA



Zein ekintzara narama?

Hurrengo saio osoa honen inguruan pentsatu eta proiektua alde batera utzi

Zer pentsatu egin du?





- Zein da ikaslearen interpretazioa?
- Gertaera objektiboaren bat dator? Errealitatearekin bat dator? Eso disfuntzionala? Egunerokotasuna oztopatzen dio?
- Alternatibarik legoke? Zein emozio eta intentsitate ekarriko luke horrek?

Ariketa.

Gertaera	Interpretazioa. Prozesu kognitiboa.	Emozioa eta intentsitatea.	Pentsamendu alternatibo egokiagoa?
Irunek bikaina atera du azterketan. Hiru akats izan ditu kalkulu aritmetikoan.	<i>"Nola ez naiz lehenago konturatu. Jo, ez naiz inoiz honetan ona izango"</i>		
Josebak mezu bat bidali dio lagunari, baina ez du erantzunik jaso.	<i>"Azkenaldian gero eta denbora gehiago behar du erantzuteko. Zerbait gertatzen ari zaio nirekin eta horregatik ez dit erantzuten. Agian haserre zaude nire lanaren parte ondo egin ez dudalako? "</i>		
Junek ez du bere proiektuan aurrera egin.	<i>"Erabat blokeatuta nago. Ezingo dut inoiz proiektua amaitu. Ez dakit zergatik sartu naizen honetan. Ni oso ondo nengoen hau hasi aurretik "</i>		

Noiz landu ditzakegu horiek?

- Tutoretza pertsonalizatuetan.
- Talde tutoriatan (PAT).
 - Fikzioarekin:
 - Ipuin kontaktetan.
 - Pelikulak ikusterakoan.
 - Antzerkiak edo dramatizazioa.
 - Jolasekin, txontxongiloekin, etab.
 - Berak sortutako narrazioekin.



Azken ideiak. Laburpena.

- Antzematea, **lehen detekzioa irakasleongan** dugu.
- Begirada entrenatu **diskrepantzia eta premia horiek ikusteko** → indikadoreak ikusterakoan, egokitzapenak martxan jarri eta norbanako ebaluazio psikopedagogiko prozesuari ekin.

1- Norbere buruarekiko konparaketan alde handia gaitasun eta errendimendu artean.

2- Funtzio Exekutiboetan eta prozesamendu abiaduran premia espezifikoak.

- Lan Memorian, Prozesamendu Abiaduran, etab.

- Eskuhartzea, gure ardatza:
 - **Talentuaren garapena eta ahulezien indartzea batera joan behar dira** (Baum, Schader, & Hébert, 2014; Foley Nicpon & Assouline, 2015).



Eskerrik asko.